

Martxoaren 30eko 57/1999 Foru Dekretua, aholku-eginkizuna Bizkaiko Lurralde Historikoko Administrazioan garatuko duena; izan ere, eginkizun hori urtarrilaren 13ko 4/1999 Legean dago ezarrita. Azken lege honek, berriz, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aldarazi zuen.

(1999ko apirilaren 13ko BAO)

ZIOEN AZALPENA

1.

Urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldarazi egin zuen Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/92 Legea; bada, lege hark honako hau xedatu zuen:

«Hamazazpigarren xedapen gehigarria.

»1. Aholku-zereginetan, interes orokorraren eta legezkotasun objektiboaren bermea denez, autonomia erkidegoak eta foru erakundeak xedapen honetan ezarritakoaren arabera antolatuko dira.

»2. Administrazio aholku-emailea, administrazio aholku-eskatzailearekiko autonomia organikoa eta funtzionala duten berariazko organoak erabilia era daiteke, edo administrazio aholku-eskatzailearen zerbitzu juridikoen bitartez antola daiteke.

»Horrela bada, zerbitzu horiek ezin izango dira egon hierarkian, ez antolakuntzaz ez funtzionamenduz, aholku-gai diren egintzak sortu edo xedapenak egin dituzten organoen mende, eta ezingo dute organo haiengandik jaso ez jarraibiderik, ez agindurik, ezta edozein eratako norabiderik ere. Kide anitzeko organo moduan jardungo dute berme horiek bete daitezen.

»3. Azken xedapen hau oinarrizkoa da Konstituzioaren 149.1.18. artikuluaaren arabera.»

2.

Hori dela eta, foru dekretu honek, estatuaren legeria garatzen duenez gero, xede gisa aholku-eginkizuna araupetzea du; horretarako Lege batzorde aholkularia sortuko da; bada, batzorde horren kideak Lehendakaritza Saileko Lege Aholkularitza Zerbitzuko kideak izango dira; bada, kide horiek, aholku-eginkizun horretan dihardutelarik, kide anitzeko organo moduan jardungo dute, eta ez dira Foru Administrazioaren beste ezoin organoren menpean izango, ez organo legez, ez eginkizunen inguruan.

3.

Foru dekretu honen araugaiak hauexek dira: aholku-eginkizunaren jite, izaera eta eremua; eginkizun horren xedea; eta Foru Administrazio aholkulariaren antolaketa eta jardunbidea, Lege batzorde aholkulariaren bidez egingo baitira; eta batzorde horren kideak Lehendakaritza Saileko Lege Zerbitzuko kideak izango dira.

Azaldutakoa dela eta, otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17.1.4. artikuluaaren itzalpean, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 1999ko martxoaren 30eko bileran onetsi ondoren, hauxe.

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua *Sorkuntza, jite eta atxikipena.*

1. Lege batzorde aholkularia sortu egin da.
2. Lege batzorde aholkularia Bizkaiko Lurralde Historikoko Administrazioaren kide anitzeko organo aholkulari eta gorena da.
3. Lege batzorde aholkularia Lehendakaritza Sailari atxikiko zaio, eta burujabea da, hierarkia, organo eta eginkizunetan, Administrazio jardulearen organoei dagokienez.

2. Artikulua *Jarduteko eremua.*

Lege batzorde aholkulariak aholku-eginkizuna egikarituko du, Bizkaiko Foru Aldundiaren, eta haren erakunde autonomiadun, Zuzenbide pribatuko herri izaiki eta sozietate publikoen jardueraren inguruan, bai eta berez nortasun juridikoa izan eta aurrekoen menpekoak diren gainerako herri izakundeen jardueraren inguruan ere.

3. Artikulua *Eskumenak.*

1. Lege batzorde aholkulariari aholkua eskatu beharko zaio arazo jakin batzuen gainean, hau da, lege lerrun edo indarra duten arauak direla-bide Lurralde Historikoko organo aholkulariaren txostena manuzkoa denean.
2. Lege batzorde aholkulariak ebatzi egingo ditu dekretu honek eratxikitzen dizkion barne jardunbideari buruzko arazoak.

4. Artikulua *Aholku-eginkizuna artezten duten abiaburuak.*

1. Lege batzorde aholkulariak jagoten du Administrazioaren jarduketa legearen eta Zuzenbidearen edukoa izan dadin; horrezaz gain, arau proiektuak eta egintzak beraren irizpenaren menpean jartzen badira, beraiek antolamendu juridikoaren edukoak direnentz esango du.
2. Beste alde batetik, interes orokorraren ikuspegitik eta lege eta Zuzenbidea zaintzeko esparruan, abagune eta komenigarritasunaren alderdiak baloratuko ditu, baldin eta arazoaren azturak horretara behartzen badu edo aholkua eskatzen duen agintariak beren beregi eskatzen badu.

5. Artikulua *Administrazio organoek laguntza emateko duten eginbeharra.*

1. Bizkaiko Foru Aldundiaren organoek laguntza eman beharko diote Lege batzorde aholkulariari, beronek hori eskatzen dienean aholku-eginkizuna eragingarritasunez egikaritzeko.
2. Lege batzorde aholkulariko buruak, Lege batzorde aholkulariaren jardunbide onerako komenigarritzat jotzen badu, Foru Aldundiaren organoei eskatu ahal izango die, azterlan eta txostenak egin ditzan, hala arazo jakin batzuei buruz, nola arazo juridiko orokorren inguruan.

II. KAPITULUA. OSAKETA ETA JARDUNBIDEA

1. ATALA OSAKETA

6. Artikulua *Osaketa.*

1. Lehendakaritza Saileko Lege Zerbitzuko legelari lanpostua dutenek osatuko dute Lege batzorde aholkularia.
2. Lehendakaritza Saileko Araubide Juridiko eta Funtzio Publikoaren zuzendari nagusia izango da Lege batzorde aholkulariko burua; Lege Zerbitzuko burua, berriz, batzordeko buruordea izango da.
3. Gainerako kideak batzordekideak izango dira.
4. Lege batzorde aholkulariko idazkari legez, batzordeburuak izendatzen duen batzordekidea izango da.

7. Artikulua *Kide izatearen iraunaldia.*

Lege batzorde aholkulariko kide guztiak batzordekide izango dira, zuzendari nagusiaren kargua duten artean edo Lehendakaritza Saileko Lege Zerbitzuari atxikita dauden artean.

8. Artikulua *Batzordeburua eta batzordeburuordea.*

1. Lege batzorde aholkulariko buruari hauexek dagozkio:
 - a) Lege batzorde aholkularia ordezkatzea.
 - b) Bilkuren deialdiak egitea.
 - c) Bilkuren egungo aztergaien zerrenda finkatzea.
 - d) Txostengileak izendatzea, arazo bakoitzeko.
 - e) Batzordeak ondo jardun dezan zein azterlan tekniko-juridiko egin behar diren zehaztu, eta azterlan horiek zein kidek egin behar dituzten izendatzea.
 - f) Bilkurak ireki eta ixtea.
 - g) Eztatanda zuzendu eta etetea, bai eta berbabidea ematea edo kentzea, hitz egiteko eskatzen duenari.
 - h) Proposamena egitea, egungo aztergaien zerrendaren barruan ez dauden arazoak erabiltzeko, baldin eta hori bidezkoak diren presara arrazoiak badaude; arrazoi horiek batzordeak hartu behar ditu aintzat.
 - i) Hainbanaketak gertatzen direnean, bere botoaz horiek erabakitzea.
 - j) Bere sinaduraz, batzordearen irizpen eta erabakiak eskustea.
 - k) Administrazio organoetara agindei eta eskabideak zuzentzea; izan ere, horiek guztiak dekretu honen 5, 19 eta 20. artikuluetan daude aipaturik.
 - l) Dekretu honek edo indarrean dirauen arautegiak eratzizkoak diren dizkionetarik beste edozein.
2. Eginkizunak horiek batzordeburuordeari eskuordetu ahal izango zaizkio.
3. Batzordeburuari honako hauek dagozkio:
 - c) Batzordebururik ez denetan, edo bera ez dagoenetan, edo hura gaixorik dagoenetan, beraren ordezkaria izatea.
 - d) Batzordeburuak eskuordetzen dizkion eginkizunak egikaritzea.

9. Artikulua *Kideak.*

- Lege batzorde aholkulariko kideei hauexek dagozkie:
- a) Bilkuretara joatea.
 - b) Eztatandetan parte hartzea.
 - c) Botoa eman, beraren nondik norakoak azaldu eta bera bidezkoak diren zioak zeintzuk diren esatea, bai eta boto berezia ematea ere, baldin eta gehiengoarekin bat ez badator.
 - d) Batzordekide izateari datzekion eginkizun guztiak.

10. Artikulua *Abstentzia.*

1. Lege batzorde aholkulariko kideek parte hartzen badute foru arauen proiektuak, araudiak edota egintzak prestatueran edo gertatueran, eta ondoren horien gainean itaunen bat egiten bazaio batzordeari; edo kide horiek txostenen bat ematen badute auzibide bat gertatuz gero haiek defendatzeko dauden ahalbideei buruz, orduan hau edo hura egin dutela adierazi beharko diote batzordeari, batzordeak erabaki dezan ea kide horiek irizpen egokiari buruzko azterlan eta hautespenean abstenitu behar dutenentz.
2. Batzordeak erabaki egokia hartuko du, arazoa azaltzen den bilkura berean, aurretik txostenik egin behar izan gabe.
3. Horrekin ukiturik dauden kideek ezin izango dute erabaki horri buruzko eztabaidetara joan, baina erabaki horren menpean geratuko dira.

11. Artikulua *Idazkaria.*

- Lege batzorde aholkulariko idazkariari hauexek dagozkio:
- a) Bilkuren egungo aztergaien zerrenda prestatu eta bideratzea.
 - b) Batzordeburuak aginduta, batzordearen bilkuren deialdia egitea.
 - c) Bilkuren aktak idatzi eta eskustea.
 - d) Akta, irizpen eta erabakiak ziurtagiriak luzatzea.
 - e) Lege batzorde aholkulariari egiten zaizkion itaun, espediente eta gainerako agirien sarrera eta irteerako erregistroa egitea.

2. ATALA JARDUNBIDEA

12. Artikulua *Bilkuren deialdia.*

1. Lege batzorde aholkulariaren bilkuretarako deialdiak behar den bestetan egingo dira; horretarako, egiten diren itaunen kopuru eta jiteari begiratuko zaio.

2. Deialdia batzordekide guztiei egin beharko zaie, gutxienez, berrogeita zortzi ordu aurretik, salbu eta presakotzat hartzen diren itaunak direnean, horrelakoetan ahalik eta bizkorren egiteko ahaleginak egingo baitira, Diputatuen Kontseiluak finkatzen duen epearen arabera.

3. Deialdia emango da, egungo aztergaien zerrendarekin eta eztabaidatu behar diren irizpen edo erabakien proposamenen aldakiarekin batera.

13. Artikulua *Quorum eta erabakiak.*

1. Lege batzorde aholkulariaren bilkurek balioa izan dezaten, batzordeburuak eta idazkariak eta, gainera, batzordekide batek egon behar dute gutxienez.

2. Erabakiak hartzeko, bilkuran daudenen botoen gehiengo behar izango da; hainbanaketak daudenean, berriz, batzordeburuaren botoak erabakiko du.

3. Bilkurako kide guztiek, banan-banan, adierazi beharko diote batzordeburuari zein den euren botoa; eta boto hori bozketaren menpean jartzen den irizpen edo erabakiaren aldekoa edo haren aurkakoa izan daiteke. Ez da onartuko abstentziorik bozketa egitean, eta ezin da goitapenik jarri, ez eta baldintza edo ñabardurarik ere jarri irizpen eta erabakiei, salbu eta boto bereziak ematen direnean.

14. Artikulua *Boto bereziak.*

1. Lege batzorde aholkulariko kideek euren boto berezia azaldu ahal izango dute gehiengoaren erabakiaren aurka, baldin eta hori egiten badute bilkura amaitu baino lehen.

2. Boto bereziak idatziz eman beharko dira, gehienez, bost eguneko epean; boto horiek batzordeko idazkariari bidaliko zaizkio, eta beraien funtsak ezin dira bilkuran adierazitakoetatik apartekoak izan.

3. Kontrako botoa ematen duten kideak boto bereziari atxiki ahal izango zaizkio, baldin eta eskubide hori zaindu badute bilkura amaitu aurretik.

15. Artikulua *Akta.*

1. Lege batzorde aholkulariaren erabakiak aktan agertaraziko dira; aktan, honako hauek azalduko dira:

- a) Bilkuraren data.
- b) Bilkurakoak.

c) Hartutako erabakiak eta beste bilkura baterako atzeraturiko arazoak.

3. Akta bilkuraren amaieran onetsiko da, edo hurrengo bilkuran; eta akta idazkariak eta batzordeburuak sinatuko dute.

III. KAPITULUA PROZEDURA

1. ATALA ITAUNA

16. Artikulua *Itaunen era.*

Lege batzorde aholkulariari egiten zaizkion itaunek ondoko betekizunok izan beharko dituzte:

a) Itauna egiten duen agintariaren erabaki batez formalizatuko dira; erabaki horrek, berriz, agintari horren egintzen euren betekizunak izan beharko ditu.

b) Erabakian adieraziko da zein manuren itzalpean egin den itauna.

c) Administrazio espedientea osatzen duten agiri guztien aldaki egiaztatua erantsi beharko da, bai eta agiri horien zerrenda ere.

17. Artikulua *Itaunak atzera bidaltzea.*

1. Lege batzorde aholkulariko buruak itaunak atzera bidaliko dizkio organo edo erakunde itaungileari, baldin eta itaunok betetzen ez badituzte aurreko artikuluan ezarritako betekizunak, eta itaunok zein betekizun falta duten adieraziko dio.
2. Itauna atzera bidaltzen denetan, irizpena emateko epea hasi ez dela ulertzen da.

2. ATALA **IRIZPENA**

18. Artikulua *Txostenak.*

1. Lege batzorde aholkulariko buruak, itaun bakoitzeko edo itaunen multzo bakoitzeko, txostengile bat izendatuko du, itaun horiek aztertu eta irizpen edo erabakiaren proposamena egiteko; eta proposamen hori batzordeari aurkeztuko zaio bilkura egokian.
2. Txostengileak aintzat hartuko du dekretu honen 19 eta 20. artikuluetako bidezkoaketa edo zabalkuntza beharrezkoa denentz, eta bere erabakiaren berri batzordeburuari emango dio; batzordeburuak, berriz, agindeia egin ahal izango du, bai eta behar den beste eskabide ere.

19. Artikulua *Tramiteak alde batera uztea.*

1. Txostengileek ziodun proposamena eginda gero, batzordeburuak organo edo erakunde itaungileari eskatu ahal izango dio, tramite jakin batzuk egiteko, baldin eta tramite horiek manuzkoak badira, baina bidalitako espedientean dokumentaturik ez badaude.
2. Agindeia egitean, epea finkatuko da tramitea betetzeko; epe hori igarota, aurrera egingo da irizpena gertatzen, eta irizpen horren funtsa prozeduraren legezkotasunaren urratzea izan daiteke, baldin eta urratze hori agindeian ohartarazitako alderauzketa bada.

20. Artikulua *Informazioa zabaltzea.*

1. Txostengileek ziodun proposamena eginda gero, Lege batzorde aholkulariko buruak organo edo erakunde itaungilearen agintari edota funtzionarioei eskatu ahal izango die, bai eta txostenaren gai izan den proiektua, egintza edo xedapena gertatzen esku hartu duten beste organo edo izakunde batzuetakoei, eta proiektuak, egintzak edo xedapenak uki ditzaketenei ere, agerraldira azal daitezen; agerraldi horren leku eta data batzordeburuak finkatuko ditu eskabidea egitean.
2. Agerpena batzordeburuaren, txostengileen eta batzordeko idazkariaren aurrean eta haien zuzendaritzapean egingo da. Bertaratutako agintari eta funtzionarioek itaungaiari buruzko galderak erantzungo dizkiete batzordeburuari edo txostengileei. Aldez aurretik, agerpena eskatzeko egintzan, galdera horiek labor azalduko dira.
3. Batzordeko idazkariak akta egingo du. Agiri horretan, bertaratutako enizenak eta nondik norakoak, eguna, entzunaldiaren zioa eta galdera-erantzunen funtsa jasoko ditu.
4. Idazkariak akta artxibatu egingo du Lege batzorde aholkulariaren Erregistroan, eta espediente egokian sartuko du.
5. Lege batzorde aholkulariaren batzordeburuak, txostengileek zioak azalduz hala proposatuz gero, organo edo erakunde itaungileari behar adina aurrekari, txosten eta froga eskatu ahal izango dizkio, espedientean sar daitezen.

21. Artikulua *Irizpenak.*

1. Irizpenean zehaztasun hauek agertaraziko dira: bera onetsi den bilkuraren eguna, txostengileen izenak eta bilkurara etorritako enizenak. Gainera, aho batez, gehiengoz ala batzordeburuaren boto erabakigarriaren bitartez onetsi den adieraziko da.
2. Irizpenak organo edo erakunde itaungileari igorriko zaizkio, batzordeburuak eta idazkariak sinaturik.
3. Irizpenarekin batera boto bereziak igorriko dira, halakorik badago, eta boto horien emailen eta beraiei atxikitako batzordekideen izenak adieraziko dira.

22. Artikulua *Irizpenak emateko epea.*

1. Entzunaldia ezartzen duen xedapenean ezarriko da batzordeak irizpena emateko izango duen epea. Besterik ezean, hilabetekoa izango da epe hori.

2. Presazko itaunak egiten direnean, irizpena emateko eperik luzeena hamabost egunekoa izango da.

3. Itauna presazkotzat jo dadin, Diputatuen Kontseiluak kalifikazio hori eman behar dio itaun horri, zioak azalduz, organo edo erakunde itaungileak proposaturik. Kalifikazioari buruzko erabakian ezarriko da irizpena emateko epe zehatza.

4. Espedientea Lege batzorde aholkulariaren Erregistroan sartzen den egunaren biharamunetik hasita zenbatuko dira aurreko idatz-zatietan aipatu ditugun epeak.

5. Epe horiek eten egingo dira, baldin eta batzordeburuak organo edo erakunde itaungileari dekretu honen 19. artikuluan aipaturiko agindeia egiten badio. Etendura agindei hori itaungilearen Erregistroan sartzen denean hasiko da, eta agindeiaren bitartez eskatutakoa behar bezala betetzen denean amaituko da, dekretu honen 19.2. artikuluan xedatutakoaren kalterik gabe.

6. Dekretu honen 5 eta 20. artikuluetan aipatutako eskaerek ez dute ekarriko epeen etendurarik.

23. Artikulua *Irizpenak ez dira lotarazleak, baina azken burukoak dira.*

1. Lege batzorde aholkulariaren irizpenak ez dira izango lotaraztekoak, legearen indarra edo lerruna duen arauaren batek besterik xedatzen duenean izan ezik.

2. Lege batzorde aholkulariak irizpena emanez gero, irizpenaren gaiari buruz ezin izango zaio txostenik eskatu beste inongo izaiki edo organori; edozelan ere, Europako Batasuneko Zuzenbidetik horri buruz etor litekeenak indarrean dirau.

3. ATALA **BESTE ITAUN BAT ETA EBAZPENA**

24. Artikulua *Beste itaun bat.*

1. Baldin eta, irizpena emandakoan, irizpenaren gai izandako egintza edo arauaren proiektuari funtsezko aldarazpenak egiten bazaizkio eta aldarazpenok irizpenean azaldutako iradokizun edo proposamenekin bat ez badatoz, beste itaun bat egingo da, aldarazpenei buruzkoa.

2. Funtsezko aldarazpentzat joko dira egintzaren edo lege nahiz araudiaren atal xedatzailearen edukia aldatzea dakartenak.

25. Artikulua *Ebazpenak edo hartutako xedapena, jakinarazpen eta alderauzketak.*

1. Lege batzorde aholkulariaren txostenen gai izandako foru arau, araudi eta egintzen proiektuetan garbi azalduko da batzordearen irizpenarekin bat etorri ala irizpen hori aintzat hartu gabe onetsita dauden. Azken kasu horretan, boto bereziren bat badago, hari lotzen zaion adieraziko da.

2. Organo edo erakunde itaungileak, behin irizpenaren gai izandako proiektua onetsitakoan edo xedapen nahiz ebazpena emandakoan, bost eguneko epean, haren aldaki bat emango dio batzordeko idazkariari, eta honek batzordearen Erregistroan artxibatuko du, espedientearekin eta irizpenarekin batera.

3. Prozeduraren baten tramitazioan, bidezko ziorik izan gabe, Lege batzorde aholkulariaren entzunaldirik egiten ez

bada, batzordeburuak hala ohartaraziko dio itauna egin zuen agentariari.

XEDAPEN GEHIGARRIA

BAKARRA

Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak behar beste xedapen emango du, foru dekretu hau garatu eta betearazteko.

AZKEN XEDAPENA

Foru dekretu hau 1999ko apirilaren 14an jarriko da indarrean.



Dokumentu honen helburua da bakarrik informazioa ematea, ez du inolako balio juridikorik.